



MUNGIAKO UDALEKO IRUZURRAREN AURKAKO NEURRIEN PLANA

AURKIBIDEA

1. Sarrera
2. Planaren helburuak
3. Aplikazio-eremua
4. Arautegia
5. Planaren edukiak:
 - 5.1. Iruzurraren, ustelkeriaren, interes gatazkaren eta irregulartasunaren definizioak.
 - 5.2. Iruzurra kontrolatzeko organoa
 - 5.3. Iruzurraren arriskuaren ebaluazioa.
 - 5.4. Iruzurraren eta ustelkeriaren aurkako prozedura.
 - a. Prebentzio-neurriak
 - b. Detekzio-neurriak
 - c. Zuzenketarako neurriak eta jazarpen neurriak
 - 5.5. Interes-gatazkak saihesteko prozedura.
6. Eranskinak
 1. Mungia Udalaren iruzurraren aurkako Adierazpen Institutuzionala.
 2. Arriskua ebaluatzeko oinarrizko galdetegia.
 3. Kode etikoa: gobernu ardura duten udal kargu publikoena.
 4. Kode etikoa: udal-kargu publikoena.
 5. Kode etikoa: lan publikoena.
 6. Interes-gatazkarik ezaren Adierazpena (IGEA).
 7. Iruzurraren aurkako Organoa.
 8. Barne Kontrola: 2022ko Finantzaketa Plana.
 9. Adierazle-katalogoa: Bandera gorriak.
 10. Mungia Udaleko Iruzurraren aurkako neurrien Planari Atxikitze Adierazpena

1. SARRERA

Iruzurra eta ustelkeria herrialde guztiei eragiten dien fenomeno sozial, ekonomiko eta politiko konplexua dira. Ustelkeriak ahuldu egiten ditu erakunde demokratikoak, moteldu egiten du garapen ekonomikoaren erritmoa eta gobernuaren ezegonkortasunari laguntzen dio.

Mungia Udalak adierazten du ez alderdi publikoan ez pribatuan ez duela ezelango tolerantziarik izango hainbat jarrerarekin: iruzurra, ustelkeria,



eroskeria edota Europar Batasunaren zuzenbidearen aurkako jokabideak. Izan ere, iruzur eta ustelkeria era guztien aurka borrokatzeko konpromisoa hartzen du, estortsioa eta eroskeria barne direla, eta horretarako politika zehatzak garatuko ditu.

2020ko ekainaren 21ean, Europako Kontseiluak aldi baterako errekupeziarako aparteko tresna adostu zuen "Next Generation EU" izenekoa; haren barruko tresna handienetako bat da "Berreskuratze eta Erresilientziarako Mekanismoa" (BEM). Tresna honek lau helburu ditu: EBren ekonomia, gizarte eta lurralde-kohesioa sustatzea; estatu kideen erresilientzia eta doikuntza gaitasuna indartzea; COVID-19aren krisiaren ondorio sozial eta ekonomikoak arintzea, eta trantsizio ekologiko eta digitalak babestea.

BEMen helburuak garatzeko, irailaren 30eko BOEn argitaratu zen HFP/1030/2021 Agindua, zeinaren bidez kudeaketa-sistema bat ezartzen baita, "Berreskuratze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana" (BEEP) egitaratzeko. Herri-administrazioek hainbat neurri hartu behar dituzte plan horretako ekimenak gauzatzeko, besteak beste, kudeaketa-prozedurak eta kontrol-eredua egokitzea.

HFP/1030/2021 aginduaren 6. artikulua definitzen ditu neurri horiek:

6. Art: BEEPeko neurriak betearazten parte hartzen duen erakunde erabakitzaile edo betearazle orok Iruzuraren aurkako neurrien Plana eduki beharko du; plan horrek bermatu eta adierazi ahal izateko dagokion jarduketaren eremuan dagozkion funtsak aplikatu beharreko arauen arabera erabili direla, bereziki iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkak prebenitu, detektatu eta zuzentzeari dagokionez.

Era berean, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021/241 (EB) Erregelamenduaren -2021eko otsailaren 12koa- 22. artikulua, EBren finantza-interesak babesteko bete beharreko neurriak arautzen ditu.

Mungiako Udalbatzak 2022ko otsailaren 25ean egindako Osoko Bilkuran "Mungiako Udalaren Iruzuraren aurkako Adierazpen Instituzionala" onartu du, eta adierazpen horren barruan, Udalak konpromiso instituzionala hartu zuen 2022. urtean Iruzuraren aurkako Neurrien Plana" prestatzeko.

Dokumentu honek Mungiako Udalaren Neurrien Plana jasotzen du, Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoen (BEM) Europako funtsak finantzatzeko jarduerak kudeatzen dituzten erakunde guztiei eskatzen zaien estatuko eta Europako araudiaren eskakizunetara egokitzeko.

Plan honetan iruzurra prebenitzeko aurreikusita dauden neurriek, berez, ezin dute bermatu Udalarentzat kaltegarriak diren egoera edo gertakaririk ez dela jazoko. Plan horren eraginkortasuna Udalaren gobernu organoek zehaztuko duten tonu etiko eta moralaren eta betetze-kultura benetan transmititzearen arabera izango da; izan ere, horiek erakutsiko dute bai Udalaren eta bai bertako langileen benetako asmoa.

Plan hau egiteko, besteak beste, hurrengo dokumentua hartu da kontuan: "Iruzuraren , ustelkeriaren eta interes-gatazkak prebenitzeko, detektatzeko eta



zuzentzeko mekanismoak indartzeko Orientabideak, Berreskuratze Transformazio eta Erresilientzia Plana kudeatzeko sistema eratzen duen irailaren 29ko HFP 1030/2021 Aginduaren 6. Artikuluan aipatzen direnak”, Ogasun eta Funtzio Publikoko Ministerioko Europako Funtzen Idazkaritza Nagusiak egindakoa eta 2022ko urtarrilaren 24an argitaratuta.

2. PLANAREN HELBURUA

"Iruzurraren aurkako Neurrien Plan" honen lehen helburua da adieraztea Mungiako Udalak Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanisмотik (BEM) datozen funtsak erabiliko dituela.

Horiek horrela, Mungiako Udala azpi-proiektuak egiteko “Erakunde Beteazletzat” hartuko da, Berreskuratze, Eraldatze eta Erresilientzia Planeko (BEEP) neurriak betetzen parte hartuko baitu.

Plan horretan planteatzen diren ekimenak garatzeko 1030/2021 Aginduak honako neurri hau ezartzen du: BEEParen neurriak beteazten parte hartzen duten erakunde erabakitzailerik edo beteazle orok “Iruzurraren aurkako neurrien Plana” eduki beharko du.

Horrez gain, Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoa Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021/241 (EB) Erregelamenduan —2021eko otsailaren 12koa— arautua dago, arau aplikagarriekin bat etorritik; hain zuzen ere, iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkek prebenitzeari, detekzioari eta zuzentzeari buruzko araudian.

Beste alde batetik, Planaren bigarren helburua da Udalak iruzurrarekiko, ustelkeriarekiko, eroskeriarekiko eta interes-gatazkekiko duen zero tolerantzia islatzea; horretarako, horien prebentziorako, detekziorako eta kudeaketa goiztiarrerako prozedurak arautuko ditu, eta erabakiak hartzean benetako kultura etikoa sustatuko du.

Ildo horretan, Mungiako Udalak **Zuzentasun Sistema** sortzen hasi zen urte hasieran eta dagoeneko pauso finkoak eman ditu arlo horretan.

Zuzentasun Sistema horrek interes-gatazken egoerak prebenitzeko eta zuzentzeko prozedurak definitzen ditu, Europar Batasunaren aurrekontu orokorrari aplikatu beharreko finantza-arauei buruzko uztailaren 18ko 2018/1046 Finantza Erregelamenduaren 61. artikuluan 1. eta 2. apartatuetan ezarritakoaren arabera. Helburu horri lotuta, Udalak honako hauek egin ditu 2022 urtean:

- Osoko Bilkurak 2022ko otsailaren 25ean onartu eta argitaratu zuen “Mungiako Udalaren iruzurraren aurkako adierazpen instituzionala”.
- Udalbatzak Gobernu ardura duten Udal kargu publikoen eta langile publikoen Kode Etikoa onartu zituen 2022ko apirilaren 29an.



- Udalbatzak Udal kargu publikoen kode etikoa maiatzaren 27an onartu zuen.
- 2022ko maiatzean 2022ko urteko Finantza Kontroleko Planean dokumentatutako arriskuen analisia egin da; honen bidez Udalaren eta bere baliabideen kudeaketarako barne-kontroleko sistema espezifiko bat sortzeko.
- 2022ko ekainaren 6an "Iruzurraren aurkako Organoa" izendatu zen.
- 2022ko ekainaren 22an Iruzur arriskuen autoebaluazioa bete da, irailaren 29ko HFP 1030/2021 Aginduaren arabera, Batzordearen autoebaluazio tresna erabiliz (II. eranskina).

Prebentzio- eta detekzio-neurriak beren ezaugarri espezifikoaren arabera zehaztu dira, betiere interes publikoen babes egokia bermatuz, eta zorrotz betez Europako eta Espainiako araudiak ezarritakoak eta EBren finantza-interesak babestearn inguruan beren erakundeek egin dituzten edo egin ditzaketen erabakiak.

Era berean, 2022ko hurrengo hilabeteetan honako neurri hauek hartukodira:

- Interes-gatazkak prebenitzeko politika onartzea.
- Kanal etikoaren protokoloa onartzea.

3. APLIKAZIO-EREMUA

1 Eremu subjektiboa

Plana nahitaez bete behar dute Udalean, edo haren mendeko edozein erakundetan, ordaindutako eginkizunak betetzen dituztenek (karrerako funtzionarioek, bitarteko funtzionarioek, lan-kontratudun langileek - kontratu finkoa, mugagabea edo aldi baterakoa dutenek-) edo behin-behineko langileek, bai eta Udaleko gobernu-organoetako kideek edo haren mendeko erakundeetako kideek ere; guztiak hartzaile gisa kalifikatuak.

Udalak espero du hartzaile guztiek (Udalan duten posizioa, titulua edo kargua gorabehera) iruzurra, eroskeria edo ustelkeria kasu bat izan daitekeen edozein jarduera susmagarriren aurrean adi egongo direla eta horren berri proaktiboki emango dutela.

Era berean, Udalak bere eginkizunak garatzeko eta gauzatzeko eta zerbitzu publikoak emateko hirugarrenen esku-hartzea eta parte-hartzea behar dela oinarri hartuta (besteak beste, entitateak, erakunde eta instituzio publiko edo pribatuak, hornitzaileak, kontratistak, azpikontratistak edo laguntzaileak), hirugarren horiek Plan honekin bat egin beharko dute,



Mungiako Udalaren Iruzzurraren aurkako Planari atxikitzeko inprimakiaren bidez (X. eranskina).

Hartzaileek, hirugarrenekin dituzten harremanetan (eta, bereziki, agintari eta erakunde publikoekin), Plan honetan jasotako iruzurraren aurkako konpromisoekin eta, orobat, iruzurra, ustelkeria eta eroskeria prebenitzeko estatuko eta nazioarteko xedapenekin bat etorritz jardungo dute.

2 Eremu objektiboa

Plana Udalak edo haren menpeko edozein erakunde autonomok, sozietatek eta fundaziok sustatzen, tramitatzen eta beste edozein modutan kudeatzen edo parte hartzen duten finantziazio-eragiketa guztiei aplikatuko zaie; bereziki, EBko funtsekin zuzenean edo zeharka lotutakoei.

4. ARAUTEGIA

Plana egiteko berariaz aplikatu beharreko lege-araudi hau hartu da kontuan:

Europako Araudia

- EBren Finantza Erregelamendua (2018/1046), 2018ko uztailaren 18koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena.
- EBren Erregelamendua (2021/241), 2021eko otsailaren 12koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzen duena (SEM)
- EBren Zuzentaraua (2017/1371), Batasunaren finantza-interesei eragiten dien iruzurraren aurkari buruzkoa.

Estatuko Araudia

- Espainiako Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana (SEEP)
- HFP/1030/2021 Agindua, irailaren 29koa, Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia kudeatzeko sistema konfiguratzeko duena.
- 36/2020 Errege Lege Dekretua, abenduaren 30ekoa, Administrazio Publikoa modernizatzeko eta Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana gauzatzeko neurri urgenteak onartzen dituena.
- 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatuaren Legearen testu bategina onartzen duena.
- 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa (SPKL).
- 40/2015 Legea, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzkoa (SPAJ)
- 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, dirulaguntzei buruzkoa.

Autonomia eta Toki Araudia

- 6/1989 Legea, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa.
- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituena.
- 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa.
- 117/2018 Foru Dekretua, abuztuaren 22koa, Bizkaiko toki sektore



publikoko erakundeen barne-kontrolaren araubide juridikoa arautzen duena.

5. PLANAREN EDUKIAK

5.1 Definizioak: iruzurra, ustelkeria, interes-gatazka, irregulartasuna, bidegabeko eralgitzea eta finantzaketa bikoitza.

Honako kontzeptu hauen definizioa Europako Funtsen Idazkaritza Nagusiak argitaratu zuen dokumentuan egiten da "Iruzurraren, ustelkeriaren eta interes-gatazkak prebenitzeko, detektatzeko eta zuzentzeko mekanismoak indartzeko Orientabideak, Berreskuratze Transformazio eta Erresilientzia Plana kudeatzeko sistema eratzen duen irailaren 29ko HFP 1030/2021 Aginduaren 6. Artikuluan aipatzen direnak".

Hurrengo kapituluetan kontzeptu horiek oinarritzen dituen oinarrizko araudia kontuan hartu da:

Iruzurra

2017/1371 (EB) Zuzentaraua (PIF) : 3. 1 artikulua

2018/1046 (EB, Euratom) Erregelamendua (EBren Finantza Erregelamendua): 136.1d) i) artikulua

2019ko martxoaren 13tik aurrera egindako egitateetarako PIF Zuzentzarauan xedatutakoaren arabera, Europar Batasunetik datozen dirulaguntzetako edo laguntzetako iruzurtzat hartuko dira Zigor Kodearen 308. artikuluan tipifikatutako arau-haustekak, 5.000 eurotik gorakoak, hau da, dolozko jokabide hauek:

1. Diru-laguntzak iruzur bidez lortzea horiek emateko eskatzen diren baldintzak faltsutuz edo ez emateko arrazoia izango liratekeen inguruabarrak ezkutatuz (adierazpen edo dokumentu faltsuak, zehaztugabeak edo osatugabeak erabiltzea edo aurkeztea, edo informazio bat jakinarazteko berariazko betebeharrak ez betetzea; eta, horren ondorioz, Batasunaren aurrekontuko funtsak edo Batasunak edo berorren izenean administratutako aurrekontuak arrazoirik gabe atxikitzea edo bidegabe eralgitzea).
2. Jasotako funtsak desbideratzea, dirulaguntza edo laguntza eman zen helburuetarako ez diren beste batzuetarako erabiltzea (funts horiek hasieran eman ziren helburuetarako barik, beste batzuetarako erabiltzea).

Gastuei dagokienez, iruzurtzat hartzen da honako hauen inguruan nahita egindako egite edo ez-egite oro:

- Adierazpen edo agiri faltsuak, zehaztugabeak edo osatugabeak erabiltzea edo aurkeztea; baldin eta Europar Batasunaren aurrekontu orokorretik edo Europar Batasunak edo bere kontura administratutako aurrekontuetatik datozen funtsak edo aktiboak, bai eta Udalak berak kudeatutakoak ere, bidegabe jasotzen edo



atxikitzen badira.

- Ondorio bera duen informazio bat jakinarazteko berariazko betebeharrak ez betetzea.
- Funts edo aktibo horiek behar ez bezala erabiltzea (funtsak desbideratzea), hasieran ematea eragin zuten helburuez bestelako helburuetarako.

Kontratu publikoekin lotutako gastuei dagokionez (egilearentzat edo beste pertsona batentzat legez kontrako irabazi-asmoz egiten direnean behintzat) honako hauei buruzko edozein egite edo ez-egite:

- Adierazpen edo agiri faltsuak, zehaztugabeak edo osatugabeak erabiltzea edo aurkeztea; baldin eta Europar Batasunaren aurrekontu orokorretik edo Europar Batasunak edo bere kontura administratutako aurrekontuetatik datozen funtsak edo aktiboak, bai eta Udalak berak kudeatutakoak ere, bidegabe erabiltzen edo funtsik gabe atxikitzen badira.
- Ondorio bera duen informazio bat jakinarazteko berariazko betebeharrak ez betetzea.
- Funts edo aktibo horiek behar ez bezala erabiltzea (funtsak desbideratzea), hasieran ematea eragin zuten helburuez bestelako helburuetarako.

Diru-sarreraren arloan, honako hauei buruzko nahita egindako egite edo ez-egite oro:

- Adierazpen edo agiri faltsuak, zehaztugabeak edo osatugabeak erabiltzea edo aurkeztea; baldin eta Europar Batasunaren aurrekontu orokorretik edo Europar Batasunak edo bere kontura administratutako aurrekontuetatik datozen funtsak edo aktiboak, bai eta Udalak berak kudeatutakoak legez kanpo murrizten badira.
- Ondorio bera duen informazio bat jakinarazteko berariazko betebeharrak ez betetzea.
- Legez lortutako onura bat ondorio berarekin bidegabe erabiltzea.

Ustelkeria aktiboa eta pasiboa

2017/1371 (EB) Zuzentaraua (PIF) : 4. 2 artikulua
2018/1046 (EB, Euratom) Erregelamendua (EBren Finantza Erregelamendua): 136.1d)ii) artikulua

PIF zuzentarauan eta Finantza Erregelamenduan xedatutakoaren arabera, ustelkeria Zigor Kodeko 419. artikulutik 427. bis artikulura aurreikusitako funtzionario-eroskeriaren delituarekin parekatzen da, baldin eta Batasunaren finantza-interesei kalte egiten badie edo kalte egin badiezaieke.

Delitu horretan honako hauek sartuko lirateke:

- 1.- Agintari edo funtzionario publikoak zigortzeko arrazoi den eroskeria



pasiboa; bere onurarako edo beste inoren onurarako, bere kabuz edo bitarteko pertsona baten bidez, edozein motatako emaria, mesedea edo ordainsaria eskatzen edo jasotzen badu, edo horretarako eskaintza edo hitzematea onartzen badu honetarako:

- a.- karguan diharduela, karguari dagozkion betebeharren aurkako ekintzaren bat egiteko,
- b.- bete beharko lukeena ez betetzeko edo justifikaziorik gabe atzeratzeko, edo
- c.- karguari berez dagokion ekintza bat egiteko, edo, besterik gabe, kargua edo eginkizuna kontuan hartzeko.

2.- Partikularrak zigortzeko arrazoi den eroskeria aktiboa; funtzionario publikoei 1. paragrafoan deskribatutakoren bat egiteko dohaintzak eskaintzen edo ematen dizkieten edo funtzionarioaren emari-eskaerari erantzuten dioten partikularren kasuak daudenean.

- Plan honen ondorioetarako, **ustelkeria aktibotzat** hartzen da funtzionario bati, berarentzat edo hirugarren batentzat, zuzenean edo bitartekari baten bidez, edozein motatako abantaila hitzematen, eskaintzen edo ematen dion pertsona ororen ekintza, bere betebeharraren arabera edo bere eginkizunak betez jardun dezan edo ez dezan jardun, Europar Batasunaren edo Udalaren finantza-interesei kalte egiteko edo kalte egin ahal izateko moduan, erakunde betearazlea edota funtsak kudeatzen dituen organoa den aldetik.
- Plan honen ondorioetarako, honako hau hartzen da **ustelkeria pasibotzat**: funtzionario baten ekintza, zuzenean edo bitartekari baten bidez, edozein motatako abantailak eskatzen edo jasotzen dituen, berarentzat edo hirugarrenentzat, edo abantaila baten promesa onartzen duena, bere betebeharraren arabera edo bere eginkizunak betez jardun dezan edo ez dezan jardun, Europar Batasunaren edo Udalaren finantza-interesei kalte egiteko edo kalte egin ahal izateko moduan, erakunde betearazlea edota funtsak kudeatzen dituen organoa den aldetik.

Interes-Gatazka

2018/1046 (EB, Euratom) Erregelamendua (EBren Finantza Erregelamendua):
61. artikulua

- Plan honen ondorioetarako interes-gatazka egongo da kasu honetan:
«finantza-eragileek eta aurrekontua gauzatzen zuzenean, zeharka eta modu partekatuan parte hartzen duten gainerako pertsonak, bai eta kudeaketan parte hartzen dutenek ere (baita prestaketa-egintzetan, auditoretzan edo kontrolean ere), beren eginkizunak inpartzialki eta objektiboki betetzea arriskuan ikusten dutenean familia-arrazoiengatik, arrazoi afektiboengatik, kideasun politikoko edo nazionalako arrazoiengatik, interes ekonomikoko arrazoiengatik edo interes pertsonaleko zuzeneko edo zeharkako beste edozein arrazoiengatik». Kontuan hartu behar da:



- i. Udalaren aurrekontu, administrazio eta eragiketa-partida guztiei aplikatzen diren, baita kudeaketa metodo guztiei ere.
- ii. Edozein interes-gatazka (zuzena edo zeharkakoa) barne hartzen duela.
- iii. Balizko interes-gatazkatzat "jotzen" den edozein egoeratan jardun egin behar dela.

Mungiako Udaleko edozein mailatako agintariek balizko interes-gatazka saihestu edota kudeatu behar dituzte.

Horretarako, zorrotz aplikatzen da interes-gatazken politika, eta dagozkion adierazpenak egiten dira politika horretan deskribatutako moduan.

Irregularitasuna

Kontseiluaren 1995eko abenduaren 18ko 2988/95 Erregelamendua: 1.2 artikulua

- Plan honen ondorioetarako, irregularitasunak jotzen da eragile ekonomiko baten ekintza edo ez-egite bati dagokion Erkidegoko zuzenbideko xedapen baten arau-hauste oro; baldin eta arau-hauste horrek Europar Batasunaren aurrekontu orokorrari edo Udalaren aurrekontuari kalte egitea eragiten badu edo kalte egitea eragingo balu, dela Europar Batasunaren kontura zuzenean jasotako baliabide propioetatik datozen sarrerak murriztuz edo kenduz, dela gastu bidegabe baten bidez.
- Asmoa da iruzurra eta irregularitasuna bereizten dituen faktorea.

Bidegabeko eralgitzea

Bidegabeko eralgitzea Zuzentarauan (PIF) jasota agertzen da; hain zuzen ere, Batasunaren finantza-interesei eragin diezaiekeen beste arau-hauste penal baten moduan agertzen da bertan, eta honela definitzen da: funtsak edo aktiboak zuzenean edo zeharka kudeatzeko ardura eman zaion edozein funtzionariok funtsak konprometitzeko edo ordaintzeko, edo aktiboak aurreikusitako helburuen kontra eskuratzeko edo erabiltzeko nahita egindako egintza da, betiere Batasunaren finantza-interesei kalte egiten badie.

Espainiako araudiaren erregulazioaren ikuspegitik, bidegabeko eralgitzearen delitua Zigor Kodearen 432-435. artikuluetan jasota dago, eta, oro har, honako modalitate hauek jasotzen ditu:

1. Administrazio desleiala: agintari edo funtzionario publiko batek, ondare publikoa administratzeko ahalmenak izanik, ahalmen horiek gauzatzean gainditu egiten duenean dagokien muga eta ondare horri kaltea eragiten dionean.
2. Ondare publikoaren gaineko bidegabeko jabetzea: agintari edo funtzionario publiko bat beretzat edo hirugarren batentzat gordailuan, komisioan edo zaintzan jasotako diru, efektu, balore edo beste edozein gauza higigarri jabetzen denean; edo horiek beste edozein tituluren



bidez eman zaizkionean, gero entregatzeko edo itzultzeko betebeharra sortuta; edo jaso izana ukatzen duenean.

Finantzaketa bikoitza.

SEM Erregelamenduaren 9. artikulua arabera, finantzaketa bikoitza gertatzen da erreformak eta inbertsio-proiektuak SEMek eta, aldi berean, Batasuneko beste tresna batek finantzatzen dituztenean, programa guztiak barne hartuta, kudeaketa partekatukoak zein zuzenekoak, betiere gastu edo kostu berari erantzuteko badira.

Horri dagokionez, Finantza Erregelamenduak 188. artikuluan berariaz ezartzen du finantzaketa bikoitzaren debekua dirulaguntzei aplikatzea printzipio orokor gisa, 191.3 artikuluan garatua. Artikulu horren arabera, inola ere ezingo dira aurrekontuaren bidez bi aldiz finantzatu gastu berberak.

Horrez gain, Suspertze Planak finantzaketa bikoitzaren kontzeptua zabaldu egiten du honetara: dirulaguntza nazionaletatik datozen funtsak mekanismoaren finantzaketaekin uztartzen direnean (aipatutako planaren 4.6.1 apartatuko bigarren paragrafoa).

Iruzuraren aurkako Plan honen ondorioetarako, honako hauek dira EBren finantza-interesak:

EBren finantza-interesak EBko Ogasun Publikoari dagozkio, baita horren gastuen eta diru-sarreraren aurrekontuari ere. Kontzeptuaren mugaketa juridikoak sarrera, gastu eta aktibo guztiak jaso ditzake, jarraian zehaztutako kasuren bat erabiliz erantzun zaienean, horien bidez hartu direnean edo zordundu direnean:

- i. Europar Batasunaren aurrekontua.
- ii. Batasunaren instituzio, organo eta organismoen aurrekontuak, Tratatuaren arabera sortuak edo horiek zuzenean edo zeharka kudeatu eta kontrolatutako beste aurrekontu batzuen arabera sortuak.

5.2 Iruzuraren kontrolatzeko Organoa

“Iruzuraren, ustelkeriaren eta interes-gatazkak prebenitzeko, detektatzeko eta zuzentzeko mekanismoak indartzeko Orientabideak, Berreskuratze Transformazio eta Erresilientzia Plana kudeatzeko sistema eratzen duen irailaren 29ko HFP 1030/2021 Aginduaren 6. artikuluan aipatzen direnak”, Ogasun eta Funtzio Publikoko Ministerioko Europako Funtzen Idazkaritza Nagusiak egindako dokumentuan, Iruzuraren aurkako organoaren osakerari eta funtzioei buruz proposamenak aurkeztu ditu. Mungiako Udalak ildo horretatik jarraituz, Iruzuraren aurkako organoa izendatu du eta hurrengo eginkizunak eman dizkio:

- Batasunaren finantza-interessei iruzur egiteko arriskuaren aldizkako ebaluazioa egitea.
- Arrisku-adierazleak identifikatzen parte hartzea, iruzurra prebenitzeko beharrezko neurriak zehazteko.
- Mungiako Udalarri Iruzuraren aurkako neurrien plan bat proposatzea.



- Iruzurtzat edo ustelkeriatzat har litezkeen gaiak aztertea eta organo eskudunari jakinaraztea.
- Prebentzio-kultura sustatzea ustelkeriaren eta iruzurraren aurkako zero tolerantziaren printzipioan oinarrituta eta Mungiako Udaleko langileen prestakuntza bultzatzea.

Iruzurraren Aurkako Organoa diziplina anitzeko organoa da eta honako kargu hauek betetzen dituzten pertsonak osatzen dute:

- Idazkaria
- Kontu-hartzailea
- Diruzaina
- Lege aholkularia
- Ekonomia eta Kontu-hartzailletza arloko teknikaria

Organo horrek hirugarrenen lankidetzat eta aholkularitza eskatu ahal izango du, dituen eginkizunak behar bezala betetzeko beharrezkotzat jotzen duenean, eta ekimen-askatasuna izango du, hau da, ikerketa bat hasi ahal izango du alde aurretik salaketa bat edo nagusi baten agindua egon barik, betiere, edozein arrazoi dela medio, egokitzat jotzen badu.

Iruzurraren Aurkako Organoak sekretupean gordeko ditu bere deliberamendu eta erabakiak, eta, oro har, ez du emango bere karguan diharduela eskura duen informazio, datu, txosten edo aurrekaririk, eta ez ditu erabiliko ez bere onurarako ez hirugarrenen onurarako.

Iruzurraren Aurkako Organoak bere eztabaidei eta erabakiei buruzko txostenak egingo ditu, eta ikerketa-prozedura baten eraginpean dauden agintarien edo alderdien esku jarri ahal izango ditu, salaketa-kanalari buruzko politikan edo Udalaren beste politika batzuetan zehaztutako neurrian.

Iruzurraren Aurkako Organoaren konfidentzialtasun-betebeharrak bere horretan iraungo du kargua uzten duenean ere.

Iruzurraren Aurkako Organoak edo organo horretako edozein kidek interes-gatazkarik sortuz gero, horren berri eman beharko dio gobernu-organoari, eta horrek izango du horren inguruan sor daitezkeen zalantzak edo gatazkek ebazteko eskumena.

5.3 Iruzurraren eta ustelkeriaren arriskuaren ebaluazioa

Udalak identifikatu egin du zeintzuk diren proiektuen kudeaketan iruzurrarekin, ustelkeriarekin eta eroskeriarekin lotutako arriskuak gauzatzeko moduko jarduerak.

Iruzur-arriskuen autoebaluazioa irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduaren arabera egin da, Batzordearen autoebaluazioa-tresna erabiliz (II. Eranskina).

Tresna horren aplikazioarekin, alde batetik, jarraian zehazten diren kudeaketa-prozesuetan gerta daitezkeen arrisku espezifikoak identifikatu nahi dira.



Horretarako, autoebaluazioaren baitan Udalak jada aplikatzen dituen gain, beste kontrol batzuk ezarri beharko lirateke, iruzurrezkoak izan daitezkeen jardueren inpaktu-probabilitatea maila onargarrietara murrizteko. Bestetik, antzemandako iruzur-arriskuak arintzeko hartu beharreko neurri eraginkor eta proportzionatuak hautatu nahi dira:

- Onuradunak hautatzea.
- Finantzatutako operazioak gauzatzea eta egiaztatzea.
- Kontratuak/diru-laguntzak esleitzea.
- Ziurtapena eta ordainketa.

Irailaren 29ko HFF/1030/2021 aginduaren 6.5 c) artikularen arabera, iruzur-arriskuaren autoebaluazioa aldi berean egin eta berrikusi behar da; bi urtean behin edo urtean behin, aurkitutako iruzur-arriskuaren arabera eta, nolatan ere, iruzur-kasuren bat detektatu denean edo kudeaketa-prozeduretan edo horiek gauzatzen dituzten langileetan aldaketa esanguratsuak daudenean.

Identifikatutako arrisku-maila oso txikia bada eta aurreko urtean iruzur-kasurik atzeman ez bada, autoebaluazioa bi urtean behin baino ez da berrikusi beharko.

Agindu horrek berak jasotzen du, iruzurraren eta ustelkeriaren prebentzio-neurrien artean, kudeatutako neurri guztietarako arriskua ebaluatzeko mekanismo egokiak ezartzea, eta horren ebidentzia uzten du. Iruzurra jasateko arrisku handiena duten prozesuko alderdiak bilatzeko eta bereziki kontrolatzeko, honako oinarri honek kontuan hartzen dira:

- a. Iruzurtzat jo litezkeen jarrerak identifikatzea.
- b. Interes gatazka posibleak identifikatzea.
- c. Barne-kontrolako sistemaren emaitzak aztertzea.

5.4 Iruzurraren eta ustelkeriaren aurkako prozedura

Plan honek modu proportzionatuan egituratzen ditu Udalak iruzurraren aurka hartutako neurriak; hain zuzen ere, iruzurraren aurkako zikloa deiturikoaren funtsezko lau elementuen inguruan: prebentzioa, detekzioa, zuzenketa eta jazarpena.

Iruzurraren aurkako neurriek legez kontrako ekintza baten etapa desberdinak hartu behar dituzte; eta jaso egingo dituzte prebenitzeko eta detektatzeko arauak, prozesuak eta horiek betetzen direla kontrolatzeko sistema.

Udalak kasu bakoitzean egokitzen jotzen dituen neurri guztiak ezarri ditu, bere jardueren garapenean eta, bereziki, proiektuen esparruan Hirugarrenen harremanetan iruzurraren, ustelkeriaren edo eroskeriaren zantzu, alerta edo susmo garaiz detektatzeko. Horretarako, iruzur-kasuak kontrolatzeko eta igarteko sistema eta prozedura egokiak ezarri ditu.

Udalaren izenean eta horren onurarako jarduten duten edo jardun dezaketen edo bitartekari izan daitezkeen Hirugarrenen alderdi guztiei, edo, edozein modutan, harekin zerikusia dutenei, dagozkien arretazko prozedurak aplikatu



beharko zaizkie, inguruabarren arabera, eta, horrela, horien jarduera desegoki edo ez-zilegi baten ondoriozko arrisku potentzialak gutxitu egin beharko dira.

Nolanahi ere, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legean aurreikusitakoa aplikatuko da. Lege horren bidez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 201/24/EB Zuzentarauen transposizioa egiten da Espainiako ordenamendu juridikora. Halaber, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legean xedatutakoa aplikatuko da.

5.4.1 Hirugarrenen hautaketa.

Hirugarrenaren hautaketa honako arau hauen arabera egingo da, araudi aplikagarriak horretarako aukera ematen duen bitartean.

- Entitateak eskaintzen eskaera bat idatziko du, eta bertan idatziz zehaztuko ditu eskatutako zerbitzuaren ezaugarriak, aurrekontu argi eta homogeenak lortzeko.
- Enpresa esleipendunari berariaz eskatuko zaio laneko arriskuen prebentzioari eta langileen eskubideei buruzko arauak, iruzurraren eta ustelkeriaren aurkako arauak eta lehia askea babesten duten arauak betetzea.
- Aukeraketa guztietan parte hartuko dute, ahal den guztietan, gutxienez hornitzaile bik eta, ahal dela, hiru hornitzailek, kasuan kasuko kontrataziorako egokien artean, betiere prezioaren, zerbitzuaren kalitatearen eta hornitzailearekiko harreman historikoaren irizpideak kontuan hartuta.
- Berariaz debekatuta dago aurrekontuak eskatzen zaizkien hornitzaileei beste eskaintza batzuei buruzko datu ekonomikoak ematea.
- Proposatutako eskaintzak lortu ondoren, gardentasun eta berdintasun printzipioak aplikatuz aztertu eta baloratuko dira.
- Egokitzen jotzen bada, jasotako eskaintzen baldintzak negoziatuko dira. Baldintzen negoziazioa, eta, bereziki, baldintza ekonomikoena, gardentasunez egingo da.
- Azkenik, eskaintzarik onena aukeratuko da.
- Hautaketa-prozesuan, IBEBek eta Europako Batzordeak arlo horretan emandako gomendioei jarraituko zaie, hala nola:
 - IBEB: iruzurra kontratazio publikoan. Alerta-adierazleak eta jardunbide egokiak biltzea.
 - 2021/c 91/01 komunikazioa, kontratazio publikoan kolusioari aurre egiteko tresnei eta lotutako bazterketaren arrazoia aplikatzeko moduari buruzko orientabideei buruzkoa.

Hirugarrena hautatzeko prozesua behar bezala dokumentatu beharko da.

5.4.2 Kontratazio-prozesua.

Hirugarrenei dagokienez formalizatu beharreko kontratuaren edukiak honako xede hauek bete beharko ditu:



- Idatziz jaso beharko da, eta funtsezko baldintzak izan beharko ditu, Iruzuraren aurkako Plan honetan xedatutakoaren arabera.
- Argi eta garbi zehaztuko ditu erakundearen eta Hirugarrenaren eskubideak eta betebeharrak, eta datu pertsonalak babesteko araudian ezarritakoa bete beharko du.
- Konplexutasunaren arabera, Entitatearen aholkularitza juridikoak berrikusi ahal izango ditu kontratuak.
- Behar besteko ordezkari-tza-ahalmena duen Udalaren ordezkariak formalizatuko du kontratua.

Udalak neurri egokiak ezarriko ditu jarduera, zerbitzu, eragiketa, transakzio edo hitzarmen oro, edozein motatakoak eta izaeratakoak direla ere, une bakoitzean aplikatzekoa den indarreko araudian eta haren oinarri arautzailetan, terminoetan eta baldintzetan aurreikusitakoaren arabera gauzatzen dela bermatzeko. Horrez gain, arrisku bat dakarten kasuek modu egokian eta goiztiarrean kudeatzeko neurriak izango dituzte.

Berehala jakinaraziko zaie Udaleko zuzendaritza-organoei Udalaren betebeharren betetze zuzen eta osoari eragiten dion edo eragin diezaiokkeen gorabehera edo gertaera oro, aplikagarria den legedian aurreikusitako baldintzetan, bai eta Udalaren politika honetan eta gainerako barne-araudian xedatutakoaren arabera jarduketari ere.

Udalaren jarduera-eremuan iruzur, ustelkeria edo eroskeria kasu bat gertatzea ekar lezakeen edozein kasu gertatzen denean, berehala ekingo zaio aztertze, ikertze eta informazioa lortzeko prozedurari, eta beharrezkoak diren neurriak hartuko dira gertaeraren eragina minimizatzeko eta tartean egon daitezkeen interes publiko zein pribatuen eragina murrizteko, betiere betebeharrari kalterik egin gabe. Agintari publiko eskudunei (nazionalak edo europarrak) eta Estatuko, autonomia-erkidegoetako edo udalerrietako segurtasun-kidegoei horren berriemateko.

Udalak neurri zuzentzaileen plan bat hartuko du arriskuak kudeatzeko eta kontrolatzeko egitura berrikusteko, aldatzeko eta egokitzeko, bai eta ezarritako neurriak, prozesuak eta prozedurak berrikusteko eta aldatzeko ere, Plan honetan ezarritakoarekin bat etorritik.

Prebentzio neurriak

Prebentzioa sistemaren funtsezko alderdia da, interes-gatazkak, iruzurra edo ustelkeria gertatzea saihesten baitu.

Kontuan hartuta zaila dela iruzurrezko portaera frogatzea eta horrek eragindako kalteak konpontzea, hobe da iruzurrezko jarduera prebenitzea, jarduera hori gertatu denean jardutea baino.

Hala, Udalak prebentzio-neurri hauek hartzeko konpromisoa hartzen du:

1. Arriskuen analisia (II. Eranskina)



2022ko maiatzean 2022ko Urteko Finantza Kontroleko Planean dokumentatutako arriskuen analisia egin da, Udalaren eta bere baliabideen kudeaketan kontrol-sistema espezifiko bat prestatzeko.

Ondoren, 2022ko ekainean, iruzur-arriskuen autoebaluazioa egin da, HFP 1030/2021 Aginduaren arabera, Batzordearen autoebaluazio-tresna erabiliz (II. eranskina).

2. Mungiako Udalaren Iruzuraren aurkako Adierazpen Instituzionala (I. Eranskina)

Udalak, erantsi den Adierazpen Instituzionalaren bidez (I. Eranskina), honako prebentzio-neurri hauek hartzeko konpromisoa adierazten du, bai eta erakunde osoak Kode Etikoa eta SEM kudeatzeko ezarritako arauak errespetatzeko konpromisoa ere.

Adierazpen Instituzionalean jasotako konpromiso horiek Udalaren organo arduradun gorenak, Osoko Bilkurak, onartu ditu.

Iruzuraren aurkako politikak ezartzean hartutako konpromiso horien eraginkortasuna bermatzeko, langileei mekanismo horren berri emango zaie.

Mungiako Udalak Zuzentasun Sistema osatzen hasi da, helburu hauekin:

Alde batetik, arduradun eta langile publikoen artean, beraien funtzio publikoen jardueran, zuzentasun kultura bat garatu eta bultzatzeko; eta beste alde batetik, Europako finantza interesak babesteko agindua betetzeko.

Udalbatzak onetsi egin du 2022ko otsailaren 25ean egindako Ohiko Osoko Bilkuran iruzurraren aurkako Adierazpen Instituzionala eta bertan berretsi egin du bere eginkizunak betetzean iruzurraren eta ustelkeriaren aurka borrokatzeko duen konpromisoa; era berean, interes-gatazkek arin eta behar bezala kudeatzeko asmoa adierazi du.

Adierazpen hori Mungiako webgunean Zuzentasun Sistemaren esparruan argitaratu da.

3. Mungiako Udalean gobernu ardura duten udal kargu publikoen Kode Etikoa (III. Eranskina)

Udalbatzak onetsi egin du 2022ko apirilaren 29an egindako Ohiko Osoko Bilkuran kode hau eta mungia.eus webgunean argitaratuko da. Zuzentasun Sistemaren atalean

Esparru auto-erregulatzailea da eta gobernu ardura duten udal kargu publikoek horrekiko konpromisoa erakutsiko dute, atxikipen konpromisoa sinatuz.

4. Mungiako Udaleko langileen jokabidearen Kode Etikoa (IV.



Eranskina)

Udalbatzak onetsi egin du 2022ko apirilaren 29an egindako Ohiko Osoko Bilkuran eta Zuzentasun Sistemaren atalean kokatu eta argitaratuko da, mungia.eus webgunean.

Kode hori iruzurraren aurkako neurrien arloko balioak eta jokabideak transmititzeko baliabide nagusia da eta bertan aipamen berezia egiten zaio Europako funtsen kudeaketan duen aplikazioari.

5. Mungiako Udaleko Udal kargu publikoen etika eta jokabide arauen Kodea (V. Eranskina)

Udalbatzak onetsi egin du 2022ko maiatzaren 27an egindako Ohiko Osoko Bilkuran kode hau eta Zuzentasun Sistemaren atalean mungia.eus webgunean argitaratuko da.

Esparru auto-erregulatzaila da eta udal kargu publikoek horrekiko konpromisoa erakutsiko dute, atxikipen konpromisoa sinatuz.

Kode horiek transkribatu egiten dute honako artikulua hauetan jasotakoa: EPOEren 52. artikulutik 54.era bitartekoetan enplegatu publikoentzat aurreikusitakoa, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 26. artikuluan aurreikusitakoa eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 35. artikuluan jasotakoa.

6. Interes-gatazkarik ezaren Adierazpena – IGEA (VI. Eranskina)

Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoarekin finantzaturako azpi-proiektuen eta jarduketan kudeaketan eta gauzatzean parte hartzen duten agintaritzak eta langile guztiek beteko dute interes-gatazkarik ezaren adierazpena.

7. Iruzuraren aurkako organoa (VII. Eranskina)

Mungiako Udalak Iruzuraren aurkako organoa izendatu du: diziplina anitzeko organoa da eta planaren jarraipena, eguneratzea eta ebaluazioa egiteko ardura du.

8. Salaketen kanpoko kanala

2022. urtearen amaiera baino lehen, Zuzentasun Sistemaren esparruaren barruan, web orrian argitaratuko da Europako funtsei eragiten dieten iruzurrei edo irregulartasunei buruzko informazioa jakinarazteko salaketa-kanal bat dagoela:

Europar Batasuneko funtsekin finantzaturako proiektu eta lanekin lotuta egon litezkeen iruzur edo irregulartasunak jakinarazi nahi badizkiozu Iruzuraren Aurkako Koordinaziorako Zerbitzu Nazionalari, Zerbitzuak horretarako ipini duen kanalaren bidez egin dezakezu; esteka honen bidez



sar zaitzke.

[Iruzurrak eta irregulartasunak jakinarazteko inprimakia lortzeko sarbidea](#)

9. Prestakuntza

Udalak prestakuntza-ekintzak antolatuko ditu hartzaileentzat iruzurraren eta ustelkeriaren prebentzioaren arloan.

2022ko urtean hitzarmena sinatu da gai horretan espezializatutako enpresa batekin formakuntza egokiena antolatu dezan.

10. Barne kontrola (VIII. Eranskina)

Mungiako Udalak barne kontrol eraginkor bat ezarri du eta helburu du detektatzen diren arriskuen zuzen kudeaketa. Hain zuzen ere, 2022ko barne kontrola hurrengo arloetan oinarritu da:

- Diru-sarreretan: transferentziak, dirulaguntzak eta kontratuak.
- Gastuetan: kontratuak, dirulaguntzak, giza baliabideen kudeaketa.
- Diruzaintzan: abalak.
- Aurrekontuan.

Barne kontrol hori kontu-hartzaile sailak egiten du eta hurrengo arautegian oinarritzen da:

- 7/1985 legea, apirilaren 2koa, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituena;
- Abenduaren 16ko 9/2055 Foru-araua, Toki Ogasunei Buruzkoa
- Bizkaiko Foru Aldundiaren 117/2018 Foru Dekretua, abuztuaren 22koa, Bizkaiko tokiko sektore publikoko erakundearen barne-kontrolaren araubide juridikoa arautzen duena.

Detekzio neurriak

Detekzioa iruzurraren aurkako borrokaren unerik aproposena da; izan ere, une horretan espero da iruzurraren aurkako plana kudeatzen eta ezartzen parte hartzen duen erakundeak eskuratutako ezagutzek eta ezarritako tresnek emaitzak izatea. Hautemandako anomaliak egiaztatu egin behar dira, eta EBren interesen kalterako izan daitekeen legez kanpoko jardueraren bat egon daitekeela pentsarazten duten gertaeretara bideratzen bagaituzte, neurriak bide bitan kokatuta hartu beharko dira:

a) Prebentzioan; erakundeak kalte potentziala arintzeko neurriak ezarri behar baititu.

b) Ikerketan; izan ere, egiaztapen eta kontrol-lan egokiak egin ondoren, informazioa agintaritzaren judizial edo administratibo eskudunetara bideratu behar da, zigor-arloko epaiketa egiteko edo ustezko arau-haustea baloratzeko.

Prebentzio-neurriek ezin dute erabateko babesa eman iruzurraren aurka, eta, beraz, prebentziotik kanpo dauden iruzurrezko jokabideak garaiz



detektatzeko sistemak behar dira. Beraz, iruzurraren aurkako estrategia on batek kontuan izan behar du oraindik ere kasuak egon daitezkeela, eta horretarako beharrezkoa dela iruzurra detektatzeko neurriak diseinatzea eta betearaztea.

Iruzurra detektatzeko tresnen barruan honako hauek egin daitezke:

- Datu-baseak erabiltzea, hala nola Dirulaguntzen Datu Base Nazionala (BNDS), datuak aztertzekeo tresnak («data mining») edo arriskuen puntuaziokoak (ARACHNE).
- Iruzurraren adierazleak garatzea (bandera gorriak) eta horiek detekta ditzaketen langileei jakinaraztea (horiek definitzeko, baliagarriak dira aurrerago aipatuko diren OLAF-Iruzurraren aurka Borrokatzeko Europako Bulegoaren dokumentuak).

Alerta-adierazle bat edo bandera gorri bat ezohiko zerbait gertatu dela eta erakundearen ohiko jarduera arruntarekin bat ez datorrela adierazten duen abisua da, hau da, alarma-seinaleak, iruzurraren edo ustelkeriaren arrastoak edo zantzuak. Beraz, zerbait ohikotik ateratzen dela eta arreta handiagoz aztertu behar dela adierazten dute.

Kontuan hartu behar da bandera gorri bat egoteak ez duela esan nahi iruzurra edo bestelako irregulartasunik dagoenik, baina adierazten du jarduera-eremu jakin batek aparteko arreta behar duela irregularra izan daitekeen jarduera bat baztertzeko edo berresteko.

Salaketa-kanal bat izatea funtsezkoa da iruzurra, ustelkeria, interes-gatazkak edo finantzaketa bikoitza azkar detektatzeko, arrisku horiek gauzatu ondoren.

1. Adierazle katalogoa -Bandera gorriak (IX. Eranskina)

“Bandera gorriak” izeneko erreferentziatzeko adierazle katalogo bat sortu da, Europako Batzordeak emandako dokumentazioa erabiliz, eta iruzur-arriskuak antzemateko egoeran dauden langile guztiei jakinarazi behar zaie informazio hori.

Mungia Udalak bandera gorri horietan oinarrituta “Egiaztatzeko zerrenda” IX. Eranskinean erantzen dena, garatu du.

Kontu-hartzailak beteko du zerrenda hori, dirulaguntza edo kontratu bakoitzean, BEEParen jarduerak gauzatzeko izapidetzen diren prozeduretan.

2. Salaketen barneko kanala: Kanal Etikoa



Udalak jokabide txarraren, iruzurraren, ustelkeriaren edo beste edozein urraketa etikoren susmoak isilpean eta babestuta jakinarazteko aukera bermatzen du. Horretarako, Udalak kanal etiko bat ezarriko du 2022. urtean, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2019ko urriaren 23ko 2019/1937 (EB) Zuzentarauan, Batasuneko Zuzenbidearen arau-hausteei buruzko informazioa ematen duten pertsonen babesari buruzkoan, aurreikusitakoa errespetatuz.

Iruzurrezko ekintzak edo ekintza ustelak gertatu direla pentsatzeko arrazoizko oinarria duen pertsona guztiek berehala eman behar dute ekintza susmagarriaren berri. Edozein gorabeheraren berri eman behar da lehenbailehen.

Hartzaileek iruzurraren aurkako plana ez betetzea edo urratzea eragin dezaketen ekintza edo egitate guztien berri eman behar dute (aurrerantzean, «**Salaketak**»).

Era berean, Iruzurraren aurkako Plana osatzen duten arauak eta printzipioak buruzko kontsultak bidali ahal izango dituzte hartzaileek kanal etikoaren bidez, eta, zalantzarik gabe, horien irismenari, aginduen interpretazioari edo kasu jakin baten aplikazioari buruzko zalantzak jaso ahal izango dituzte (aurrerantzean, «**Kontsultak**»).

Salaketak eta kontsultak honako helbide elektroniko honen bidez bidali beharko dira: kanaletikoa@mungia.eus

Iruzurra kontrolatzeko organoa arduratuko da salaketak eta kontsultak izapidetzeaz, kanal etikoaren protokoloaren arabera.

Iruzurraren Kontrolerako Organoak parte hartzen badu, jakinarazpena Udaleko Arlo Ekonomikora bidaliko da.

Salaketa faltsuek edo ezarritako prozeduren arabera iruzurrezko jardueren edo jarduera ustelen susmoak behar bezala ez salatzeak diziplina-neurriak edo bestelakoak izango dituzte, kasuan-kasuan dagokionaren arabera, salaketa egiten duen pertsonaren eta Udalarekin duen harremanaren arabera.

Errepresaliak eta zigorrak ez dira onartuko ustezko iruzurrezko jarduerak edo jarduera ustelak salatzeagatik, eta edozein salatzailek Udalaren laguntza eta babesa jasotzeko eskubidea izango du, edozein motatako errepresaliak saihesteko.

3. Barne kontrola

Udaleko Kontuhartzailletza sailak, iruzurraren aurkako Organoaren betebeharrak kontuan hartuta eta Urteko Finantza Planaren arabera, barne kontrolerako hainbat neurri antolatu ditzake iruzur kasuek aurreikusteko.

Zuzenketarako neurriak eta jazarpen-neurriak



Asmoa iruzurraren berezko elementua da, Europako zuzentarauan jasotako kontzeptuaren arabera.

Iruzurra egiteko asmo hori badagoela frogatzea, eta, beraz, Batasunaren finantza-interesei iruzur egiten zaien ala ez frogatzea, ez dagokie Administrazio-organoei, baizik eta dagokion zigor-arloko Jurisdikzio-organoei.

Hala ere, administrazio-organoei, eskura duten dokumentazioaren arabera, aurretiazko balorazio bat egin behar dute, balizko asmo horri buruz.

Zehatzago esanda, ustezko iruzur-kasu bat detektatu ondoren, iruzurraren aurkako organoak baloratuko du beharrezko den ala ez ikerketa bat hastea eta ea bidezkoa den ekintzak abiaraztea modu desegokian jasotako zenbatekoak berreskuratzeko; baita egokiak izan litezkeen beste lege ekintza batzuk bideratzea egokia den ere.

OHOFP 1030/2021eko 6.6 artikuluko zehaztapenen arabera, iruzur edo susmo oinarritutako bat hautematen denean, iruzurraren aurkako Organoak, nahitaezko urrats hauek bete beharko ditu:

1. Espedientea hasi: Irregularitasuna benetakoa dela egiaztatzea, dokumentazioa biltzea, eragindakoei eta lekukoei entzunaldia ematea eta behar diren eginbideak bideratzea.
2. Espedientearen izapidetzea amaituta, iruzurraren aurkako organoak egoki jotzen duena ebatziko du.
3. Emandako ebazpenak ondorioztatzen badu hartzaile batek (Udalarekin duen harremanaren izaera gorabehera) irregularitasunen bat egin duela, giza baliabideen arduradunari eta lege-aholkularitzari jakinaraziko dio, eta iruzurraren aurkako Organori emango diote hartutako neurrien berri.
4. Gobernu Organoko kideren bati eragiten dion irregularitasuna izanez gero, iruzurraren Aurkako Organoak Gobernu Batzordeari helaraziko dio emandako ebazpena, plan honetan aurreikusitako neurrietako edozein aplikatu dezan. Iruzurraren aurkako Organori emango zaio neurri horiek hartu izanaren eta horien edukien berri.
5. Emandako ebazpenak ondorioztatzen badu hirugarren batek irregularitasunen bat egin duela, Lege Arloari jakinaraziko dio, dagozkion kontratu-eskubideak erabil ditzan eta horren berri emango dio iruzurraren aurkako Organori.
6. Espedientearen ondorioz agerian geratzen bada legezko jarduketak egin behar direla, Arlo Juridikoari jakinaraziko diote, kasuan kasuko jarduketak administratibo edo judizialak has ditzan. Arlo horrek Agintari Arduradunari emango dio gaiaren berri.



7. Hala badagokio, agintaritza publiko eskudunei (adibidez, Iruzzarren aurkako Koordinazio Zerbitzu Nazionalari) salatuko zaizkie egitate zigorgarriak, baloratu ditzaten eta, hala badagokio, Iruzzarren aurka Borrokatzeko Europako Bulegoari jakinaraz diezazkioten.
8. Fiskaltzaren, agintari eskudunen eta auzitegi eskudunen aurrean salatuko dira gertakariak, kasu egokietan.

Neurri horiek hartzeko, Iruzzarren Aurkako Organoak kanpoko aholkularitza eskatu ahal izango du, dagokion legeria behar bezala aplikatzeko beharrezkotzat jotzen badu.

Atal honetan jasotako ondorioez gain eta proiektu bat abian jarri eta lizitzatzeko berariaz aurreikusitako ondorioez gain, egiaztatzen bada proiektu jakin bati lotutako hirugarren batek plan honetan aurreikusitakoari jarraiki debekatutako jardunbideren bat egin duela kontratazio publikoko prozedura edo proiektu bat gauzatzeko orduan, Udalak aukera hauek izango ditu:

1. Debekatutako jardunbidea behar bezala eta berehala zuzentzeko eskatzea.
2. EBko funtsak itzultzeko eskatzea, hala badagokio; ukituta badaude.
3. Deklaratzea Hirugarren hori Udalarekin zerikusia duten kontratuak esleitzeko ez dela hautagarria.
4. Ukatzea Udalak kontratu bat emateko eragozpenik ez duela deklaratzeko; eta kontratu-neurri egokiak aplikatzea (hala nota etete eta balio gabetzea)
5. Hirugarrenekin egindako eta proiektuekin zerikusia duten kontratuak Udalak ebatzi ahal izango ditu, honako inguruabar hauetakoren bat gertatzen bada:
 - Hirugarren batek deskribatutako kontrolak aplikatzeari uko egitea, kontra egitea edo hura oztopatzea
 - Hirugarrenek ez betetzea baldintza-agirian edo oinarri arautzaileetan araututako funtsezko baldintzak.

5.5 Interes-gatazka saihesteko prozedura

Iruzzarren aurkako Plan honetan tresna hauek hartu dira interes-gatazka prebenitzeko eta antzemateko:

- Interes-gatazka mota desberdinei buruzko informazioa ematea inplikaturako alderdiei.
- Kode Etikoak onartzea eta argitaratzea, zeinetan langileen eta kargu publikoen printzipio etikoak eta jokabide-arauak ezartzen diren.
- Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoak finantzaturako jarduketetan parte hartzen duten aldeek Interes-gatazkarik ezaren Adierazpena (IGEA) betetzea.



- Prestakuntza-plan bat ezartzea.
- Iruzur-adierazleen katalogo bat betetzea, balizko interes-gatazkak antzemateko adierazleak dituen.

Interes-gatazka baten susmo sendoak izanez gero, eraginpeko pertsonak saileko arduradunari jakinaraziko dio, behar diren kontrolak eta ikerketak egin ditzan, eta, hala badagokio, Iruzuraren aurkako Organoari jakinaraziko dio.

5.6 Oparien eta antzekoen politika.

Hartzaileek hirugarrenen inpartzialtasuna, osotasuna eta objektibotasun profesionala alda dezakeen edozein interferentzia edo eragin saihestuko dute.

Hartzaileek ezin izango dute, ez zuzenean ez zeharka, opari edo onura pertsonalik, ordainketarik, komisiorik edo bestelako onurarik onartu beren jarduera profesionalaren esparruan, ez hirugarrenekin duten harremanean, ez Udalarekin edozein eratako harremana hasi nahi dutenekin (ezta euren izenean jarduten dutenen kasuan ere), baldin eta helburua era desegokian eragitea bada euren harreman komertzial, profesional edo administratiboetan, publiko zein pribatuetan.

Era berean, hartzaileek ezin dute hirugarrenenen, udalarekin harremana izan nahi dutenen edo euren kontura dihardutenen oparirik, ordainketarik, komisiorik edo bestelako onura pertsonalik eskatu, ezta onartu ere.

Plan honen ondorioetarako eta zehazteko, opari edo onura pertsonaltzat hartuko dira hartzaileei eskaintzen, agintzen edota ematen zaizkien opari, ondasun, zerbitzu, ikuskizun edo ekitaldietarako sarrera, bidaia, lehentasunezko tratu, deskontu berezi edo bestelako arreta guztiak.

Mintegietara eta prestakuntzako helburu hutsa duten jardueretara joatea, eta bazkari edo gosari informatiboak ez dira onura pertsonaltzat hartuko, salbu eta, kostuagatik, lekuagatik, testuinguruagatik edo prestazio osagarriengatik, neurritz kanpokoak badira beren xederako.

5.7 Estatuaren laguntzak eta kolusio arriskua.

Udalak prozedurak aplikatuko ditu une oro, BEEP gauzatzen parte hartzen duen erakundea den aldetik, Estatuaren Laguntzei buruzko eta Lehia Libreari buruzko araudia erabat errespetatzen dela bermatzeko eta finantzaketa bikoitzik ez dagoela bermatzeko.

Horretarako, autoebaluazioa egingo du, Estatu laguntzen araubidearekin eta finantzaketa bikoitzaren prebentzioarekin bateragarria den jakiteko.

Artikulu honetan ezarritakoaren arabera: Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Itunaren (EBFI) 107. artikuluan, Estatu-laguntzat hartzen da estatuek edo estatu-funtsen bidez edozein modutan emandako edozein laguntza, baldin eta enpresa edo ekoizpen jakin batzuei mesede eginez lehia faltsutzen badute edo faltsutzeko mehatxua egiten badute.



Bestalde, EBFiren 101. eta 102. artikuluek debekatu egiten dute operadore ekonomiko batek lehia askea faltsutzen edo murrizten duen edozein alde anitzeko edo alde bakarreko jokabiderik egotea.

Udalak printzipio horiek errespetatu beharko ditu beti, EBFiren, Lehiaren Defentsarako Legearen eta Sektore Publikoko Kontratuen Legearen arabera.

Jarraitu beharreko irizpideak Estatuko eta Lehia Askeko Laguntzen Politikan zehaztuko dira.

Arau horiek ez betetzeak ekar dezakeen edozein kasu hautematen bada, Udalak geldiarazi egingo du prozesua eta agintari eskudunei jakinaraziko die, Europako Batzordeak arlo horretan emandako gomendioei jarraituz.

6. PLANA EZ BETETZEA.

Hartzaille guztien erantzukizuna da hemen ezarritakoa betetzea. Politika honetan jasotako edozein neurri betetzen ez bada, dagozkion neurriak hartu beharko dira, indarrean dagoen diziplinazko eta bestelako lan arloko legeriaren eta kasu bakoitzari dagokionaren arabera.

Politika honen ondorioetarako, "Irregularitasuntzat" hartuko da Udalaren jarduerari aplikagarri zaion araudia eta legeria (i) ez betetzea, zigor arlokoa barne, bai eta Politika hau osatzen duten arauetako edozein ere (ii).

Irregularitasunak Proiektu bati eragiten badio, Udalak desegoki erabilitako funtsak berreskuratzeko behar diren legezko neurri guztiak hartuko ditu.

7. DATU PERTSONALEN BABESA.

Politika honen esparruan bildutako datuak modu zorrotz eta objektiboan behar beharrezkoak direnak izango dira jasotako Salaketak eta Kontsultak kudeatzeko, izapidetzeko eta horiei erantzuteko, eta, hala badagokio, Irregularitasunak ikertzeko.

Datu horiek helburu horrekin bakarrik erabiliko dira, eta ez dira erabiliko helburu bateraezinetarako.

Udalak beharrezko neurri teknikoak eta antolakuntzakoak hartu ditu, politika honen esparruan tratatutako datuen segurtasuna eta konfidentziasuna babesteko.

Salaketa baten ikerketaren testuinguruan bildutako informazioa gobernu-organuari edo Giza Baliabideen arduradunari jakinarazi ahal izango zaio. Dagokion Salaketa izapidetzeko edo bidezkoak diren diziplina edo kontratu zehapenak ezartzeko helburu bakarrarekin. Era berean, informazio hori agintari judizialei jakinarazi ahal izango zaie horiek hala eskatzen dutenean, edo salatutako egitateak arau-hauste penala direnean.



ERANSKINAK

| DESKRIBAPENA / DESCRIPCIÓN | CSV |
|--|--------------------------------------|
| Anexo 1. Eranskina: Mungiako Udalaren Iruzzurren aurkako Adierazpen Instituzionala. Declaración institucional para la lucha contra el fraude del Ayuntamiento de Mungia | 14164716326414017750 |
| 2022ko otsailaren 25ean egindako Osoko Bilkuran Mungiako Udalaren Iruzzurren aurkako Adierazpen Instituzionalaren onartu izanaren Ziurtagiria | 14164735253374124601 |
| Anexo 2. Eranskina: Arriskua ebaluatzeko oinarritzko galdetgia -2022ko ekainaren 22an beteta-. Cuestionario de evaluación del riesgo de fraude y corrupción - cumplimentado el 22 junio 2022-. | 14161763405504346456 |
| Anexo 3. Eranskina: Mungiako Udalean gobernu ardura duten udal kargu publikoen Etika eta Gobernu onaren Kodea. Código Ético de cargos públicos municipales con responsabilidad de gobierno | 14160007441652057056 |
| Anexo 4. Eranskina: Mungiako Udaleko Udal kargu publikoen Etika eta Jokabide Arauen Kodea. Código ético y normas de conducta de los cargos públicos municipales del Ayuntamiento de Mungia | 14160007721145011065 |
| Anexo 5. Eranskina: Mungiako Udaleko langileen jokabidearen Kode Etikoa. Código ético de conducta del personal del Ayuntamiento de Mungia | 14160007533121341257 |
| Anexo 6. Eranskina: Interes Gatazkarik Ezaren Aitorpena (IGEIA). Declaración de ausencia de conflicto de intereses (DACI) | 15250326703020223666 |
| Anexo 6. Eranskina: 2021/241 Erregelamenduak eta DNSHk baldintzak betetzen dituztela dioen Erantzukizunpeko Adierazpena. Declaración responsable de cumplir requisitos Reglamento 2021/241 y DNSH | 14161762760551311714 |
| Anexo 7. Eranskina Iruzzurren aurkako Organoaren izendapena. Nombramiento del Órgano de control antifraude. | 14157676132371273250 |
| Anexo 8. Eranskina: 2022. urteko Finantza-kontrolako Plana. Plan de control financiero 2022 | 14161763315772656546 |
| Anexo 9. Eranskina: | 14161763353251241264 |

Kontu-hartzailletza
Intervención
2021/6-KON_FINANTZA
2021/12/17



MUNGIA
UDALA

| | |
|---|---|
| Bandera gorriak egiaztatzeko zerrenda. Lista de comprobación de banderas rojas. | |
| Anexo 10. Eranskina: Mungiako Udaleko iruzurraren aurkako neurrien planari atxikitzeko Adierazpena. Declaración adhesión al plan antifraude del ayuntamiento de Mungia | 14161763013212005661 |